# GOBERNU BATZARRA

**2008. 07. 14**

**Behin Beh.Alkatea:**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Zinegotziak:**

**Onintza Lasa Arteaga**
**Yurre Peñagarikano Zubeldia**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko uztailaren 14an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua behin behineko alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.**

**1.-Aurreko akta onartzea.**

**2.-Hirigintzako Hitzarmen proposamena, Tolosako Plan Orokor berrian mugatutako 15.3 Kondeaneko Aldapa 11 hirigintza esparruaren Gainean./ Propuesta de Convenio urbanístico en relación al nuevo ámbito del Plan General de Ordenación Urbana 15.3 "Kondeaneko Aldapa 11".**

**3.-Zabor bilketa tasen hobaria. J.E.E.-ren eskaera.**

**4.-Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. D.G.I.ren eskaera/ Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas. Solicitud de D.G.I.**

**5.- Ibilgailuen zerga. J.F.T.A.ren ekaera./ Impuesto de vehículos. Solicitud de J.F.T.A.**

**6.-Impuesto de plusvalía. Solicitud de Comunidad de Copropietarios de Rondilla 8.**

**7.-Gizarteratze programa. Errefortzuko teknikariaren kontratazioa.**

**8.-Euskal Herria plazako zentro sozialeko jangelako bonifikazioa.**

**9.-Ampliación y prórroga servicio de**

**jardineria.**

**10.-Tolosa 2015 Tolosa Kultura gizartean/Tolosa 2015: Tolosa en la sociedad de la cultura.**

**11.- Informe limpieza viaria.**

**12.-Galtzaundi, Hitza eta Txolarrerekin hitzarmenak.**

**13.- Fatxadak pintatzeagatik dirulaguntza.**

**14.-18.zenbakia duen faktura-zerrenda.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Behin behineko Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko uztailaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- Hirigintzako Hitzarmen proposamena, Tolosako Plan Orokor berrian mugatutako 15.3 Kondeaneko Aldapa 11 hirigintza esparruaren gainean.**

Ikusita Iñaki Iriarte Otermin jaunarekin eta Blanca San Vicente Estomba andrearekin sinatzekoa den Hiri Ordenazioko Plan Orokorreko "15.3. Kondeaneko Aldapa 11" eremu berriko Hirigintzako Hitzarmen proposamena.

Ikusita, era berean, gaiari buruz udal teknikariek idatzi duten txostena, eta Euskal Autonomia Ergidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, Gobernu batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**2.-Propuesta de Convenio urbanístico en relación al nuevo ámbito del Plan General de Ordenación Urbana 15.3 "Kondeaneko Aldapa 11".**

Vista la propuesta de convenio urbanístico a suscribir con D. Iñaki Iriarte Otermin y Dª Blanca San Vicente Estomba, en relación al nuevo (sub) ámbito del Plan General de Ordenación urbana "15.3. Kondeaneko Aldapa 11".

Vistos, además, los informes jurídicos emitidos al respecto por los técnicos municipales, y de conformidad con lo previsto por la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Onartzea "15.3. Kondeaneko Aldapa 11" eremu berriari lotuta Iñaki Iriarte Otermin jaunarekin eta Blanca San Vicente Estomba andrearekin sinatzekoa den Hirigintzako Hitzarmen proposamena.

**BIGARRENA**.- Espedientea jendaurrean jartzea hogei eguneko epean, alegazioak aurkezteko. Xede horretarako, Hitzarmen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, oso-osorik.

**HIRUGARRENA**.- Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada hitzarmena, behin betiko izaeraz onartuta gelditzen dela kontsideratuko da.

**LAUGARRENA**.- Udaleko alkate-lehendakariari ahalmena ematea, Udalaren izenean aipatutako Hitzarmena eta ebazpena gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Aprobar inicialmente la propuesta de convenio urbanístico a suscribir con D. Iñaki Iriarte Otermin y Dª Blanca San Vicente Estomba, en relación al nuevo (sub) ámbito del Plan General de Ordenación Urbana "15.3. Kondeaneko Aldapa 11".

**SEGUNDO**.- Someter el expediente a información pública por el plazo de veinte días en el que se podrán presentar alegaciones. A tal fin, se publicará el contenido íntegro de la propuesta de convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**TERCERO**.- Considerar que el convenio quedará aprobado definitivamente caso de que no se presente alegación alguna en el período de información pública.

**CUARTO**.- Facultar al Alcalde Presidente de la Corporación para que formalice en nombre de este Ayuntamiento el convenio referido y cuantos documentos sean necesarios para ejecutar este acuerdo.

**3.- Zabor bilketa tasen hobaria. J.E.E.-ren eskaera.**

Gobernu batzar honek aurtengo maiatzaren 19an hartutako erabakiari erantzunez, J.E.E-k berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu du zabor bilketako tasen hobaria onartu diezaioten.

Horretarako, alokairu kontratu berria aurkeztu du.

En respuesta al acuerdo adoptado por esta Junta de Gobierno en sesión celebrada el 19 de mayo pasado, J.E.E. interpone recurso de reposición a fin de que le sea aplicada la bonificación de la tasa por el servicio de recogida de basuras.

Al efecto, presenta el nuevo contrato de alquiler.

Ikusita, Ordenantzetan adierazten dela zabor bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek edo gizarte bazterketaren kontrako planean daudenek.

Dado que en la Ordenantza se dispone que los sujetos pasivos que acrediten unos ingresos inferiores al salario mínimo interprofesional o sean beneficiarios del “Plan contra la exclusión social” gozarán de una bonificación del 100% de la tasa por el servicio de recogida de basuras.

Eta ikusita, J. E. E. tasaren subjektu pasiboa ez dela eta horregatik ez dagokiola hobaria. Baina kontuan harturik eskatutako beste baldintzak betetzen dituela eta berak orain aurkeztutako alokairu kontratuaren arabera zabor bilketaren tasa ordaintzea dagokiola,

Teniendo en cuenta que J.E.E., al no ser sujeto pasivo de la tasa, no le corresponde la bonificación, pero considerando que cumple el resto de los requisitos exigidos y que según el contrato de alquiler debe abonar la tasa derecogida de basuras.

Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- Erreziboaren zenbate-koaren % 100aren laguntza baliokidea ematea, aipatutako guztia kontuan izanik.

**PRIMERO**.- Conceder una ayuda económicaa equivalente al 100% del importe del recibo correspondiente.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

**4.-Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. D.G.I.ren eskaera/ Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas. Solicitud de D.G.I.**

2008ko ekainaren 19an, D. G. I.ak eskatu du familia ugariei aplikatzen zaien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kuotako hobaria.

Con fecha 19 de junio de 2008, D.G.I. ha solicitado la bonificación en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a las familias numerosas.

Ordenantza fiskalaren 4. artikuluko 2. atalak esaten du hobari honetaz gozatzeko subjetu pasiboak eskatu

El apartado 2 del artículo 4 de la Ordenanza Fiscal señala que el disfrute de esta bonificación requerirá la previa

egin behar duela, eta eskaera otsailaren 28a baino lehen egin behar dela (aurten bisustua dela eta, epea otsailaren 29a izan da).

solicitud del sujeto pasivo, y que la solicitud deberá realizarse antes del día 28 de febrero (este año, por ser bisiesto, el plazo ha finalizado el 29 de febrero).

Epe horren berri Tolosako etxebizitzetan banatutako egutegi fiskalaren bidez eman zen. Halaber, GAOn argitaratu zen.

De dicho plazo se informó a través del calendario fiscal distribuído en las viviendas de Tolosa y también fue publicado en el BOG.

Adierazitakoa aintzat hartuta, eta honi buruz espedientean agertzen den txosten teknikoarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

A la vista de cuanto antecede y de conformidad con el informe técnico emitido, que obra en el expediente, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- Hobaria ez ematea, eskaera epez kanpo egin delako.

**PRIMERO**.- Denegar la bonificación solicitada por haberse realizado la misma fuera del plazo establecido.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

**5.- Ibilgailuen zerga. J.F.T.A.ren ekaera./ Impuesto de vehículos. Solicitud de J.F.T.A.**

2008ko ekainaren 16an, J. F. T. A.-ak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena eskatu du SS-7223-BJ ibilgailuan, minusbaliotasuna-gatik.

El 16 de junio de 2008, J. F. T. A. ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica para el vehículo SS-7223-BJ, por motivo de minusvalía.

Ordenantza fiskalaren 2. artikuluko 3. atalak hau esaten du:

El apartado 3 del artículo 2 de la Ordenanza Fiscal señala lo siguiente:

***"Minusbalia dela-eta, salbuespenaz baliatzeko eskaerak otsailaren 15era arte egin ahal izango dira.***

***"Las solicitudes de exención por motivo de minusvalía podrán realizarse hasta el día 15 de febrero.***

***Ondoren egindako eskaerak indarrean jarriko dira eskaera egin eta hurrengo zerga-aldian.”***

***Las solicitudes posteriores a dicha fecha surtirán efectos desde el período impositivo siguiente a aquel en que se hubiera efectuado la solicitud.”***

Adierazitakoa aintzat hartuta, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Teniendo en cuenta lo señalado anteriormente, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ez ematea.

**PRIMERO**.-Denegar la exención del impuesto para el periodo impositivo 2008.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**6.-Impuesto de plusvalía. Solicitud de Comunidad de Copropietarios de Rondilla 8.**

El 23 de mayo último, la Comunidad de Copropietarios de Rondilla 8, formada por Anselmo Ibañez Ibañez, Sociedad Recreativa Herri Biltoki, Luis M. Ceberio Erausquin, Jon Ander Querejeta Picabea y Juan Antonio Zaldúa Joubert, solicitó tanto la reducción del impuesto de plusvalía enviado por este Ayuntamiento el día 5 de mayo de 2008, como la prórroga del pago del impuesto de plusvalía de tres meses a partir de la fecha de entrega de la solicitud.

De conformidad con el informe técnico emitido, que obra en el expediente, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Denegar la solicitud de la reducción del impuesto, ya que no se encuentra en ningún supuesto de exención enumerado en el artículo 5 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, ni tampoco le es de aplicación la bonificación recogida en el artículo 12 de la

Ordenanza. Por lo tanto, ratificarse en la deuda tributaria cuyo importe asciende a la cantidad de 4.146,84 €.

**SEGUNDO**.- Aceptar el aplazamiento del pago del impuesto por tres meses a partir de la fecha de entrega de la solicitud. Teniendo en cuenta que la solicitud se realizó el día 23 de mayo de 2008, el pago se debe realizar con anterioridad al día 23 de agosto de 2008, tal y como señala el art. 36 del Reglamento de Recaudación : " la Administración podrá conceder el aplazamiento o fraccionar el pago de las deudas..." "las cantidades cuyo pago se aplace, excluidos, en su caso, los recargos del período ejecutivo, devengarán el interés de demora...".

En esta misma línea, el artículo 64.4 de la Norma Foral General Tributaria dice: "la presentación de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento en período voluntario impedirá el inicio del periodo ejecutivo, pero no el devengo del interés de demora".

**TERCERO**.- Aplicar los intereses de demora al aplazamiento solicitado, que será el interés legal del dinero vigente a lo largo del período en el que aquél resulte exigible, incrementado en un 25 por 100 (art. 26 NFGT).

**CUARTO**.- En virtud del artículo 45 del Reglamento de Recaudación, se calcularán intereses de demora sobre la deuda aplazada, por el tiempo comprendido entre el vencimiento del período voluntario y el vencimiento del plazo concedido". En este caso, el vencimiento del período voluntario se produce el día 5 de junio, mientras que el vencimiento del plazo concedido se produce el día 23 de agosto.

El pago anticipado de la deuda provocará el correspondiente vencimiento anticipado de plazos y el nuevo cálculo de intereses de demora que resulten procedentes.

**QUINTO**.- Al haber solicitado el aplazamiento en período voluntario, no cabe la aplicación del recargo del período ejecutivo.

**SEXTO**.- Requerir al departamento de Intervención que efectúe a cada uno de ellos, en base a este acuerdo, las liquidaciones pertinentes.

**SÉPTIMO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la Comunidad de Copropietarios de Rondilla 8.

**7.- Gizarteratze programa. Errefortzuko teknikariaren kontratazioa.**

Gobernu batzar honek joan den ekainaren 16an erabaki zuen Gizarteratze programarako errefortzuko teknikaria kontratatzeko baldintza plegua presta zezatela.

Hori dela eta, ikusita Gizarte Zerbitzuek prestatutako baldintza plegua, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Aurkeztutako Baldintza Plegua onartzea.

**BIGARRENA**.- Emakidaren iraunaldia urtebetekoa izatea eta luzatu ahal izatea beste hiru urtetan, beti ere Eusko Jaurlaritzak laguntza eman eta Udal Batzarrak espreski urte bakoitzeko luzapena, aldez aurretik, onartzen badu.

**HIRUGARRENA**.- Dagokion publizitatea ematea Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta abarretan.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari.

**8.- Euskal Herria plazako zentro sozialeko jangelako bonifikazioa.**

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA**.- E.M.L.k egin duen eskaerari –Euskal Herria plazan dagoen zentro sozialeko jangelako hobaria izateko– ezezkoa ematea, ezarrita dauden baldintzak betetzen ez dituelako.

**BIGARREN**.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako teknikariari eta eskatzaileari.

**9.- Ampliación y prórroga servicio de jardineria.**

Hace ya año y medio que este Ayuntamiento viene realizando negociaciones con la empresa adjudicataria del servicio de Jardinería, Goroldi, en relación a la ampliación de la superficie de parques y jardines de Tolosa.
Según el contrato firmado, se podrán aprobar ampliaciones cuando la superficie se amplía en un 5%.
Dadas las mediciones realizadas, entre ambas partes se llega al acuerdo de que la ampliación se lleve a cabo a partir de enero del presente año 2008, conforme al detalle y precios que a continuación se detallan:

Zonas contratadas: 1.778.953,05 metros cuadrados.
Mediciones actuales: 1.909.823,54 metros cuadrados.
Diferencia ampliación: 130.870,49 metros cuadrados.

El cánon actual de facturación mensual (incluído el IVA): 31.884,58
El nuevo canon + 5,86%: 33.753,02

Por todo lo anteriormente expuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Abonar a Goroldi el importe de 1.868,44euros/mes correspondiente a la ampliación de la superficie de parques y jardines que se ha llevado a cabo, desde Enero del presente año 2008.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a los departamentos de Intervención, Obras y Servicios y a Goroldi.

**10.- Tolosa 2015 Tolosa Kultura gizartean/Tolosa 2015: Tolosa en la sociedad de la cultura.**

"Tolosa Kultura gizartean" dokumentua banatu da. Aipatu dokumentua Tolosan, kulturaren arlo guztietan analisia egiteko lan proposamena da.

Kontuan izanik dokumentua Kultura eta Gazteria departamenduko tekniko eta politikoekin landu dela eta oniritzia izan duela, Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Lan plangintza eta 32.062,40 euroko aurrekontua onartzea. Onartutako gastuaren zati bat 2009koari atxikiko zaio, konpromiso kreditu gisara.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Agenda 21, partaidetza eta Ingurumen departamentuari.

Se reparte entre los asistentes el documento "Tolosa en la sociedad de la cultura". Se trata de una propuesta de trabajo para el análisis de la cultura en todos sus ámbitos, en Tolosa.

Teniendo en cuenta que el mismo ha sido estudiado tanto por los técnicos como con los políticos adscritos al departamento de Cultura y juventud, y que cuenta con su visto bueno, esta Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Aprobar el plan de trabajo y su presupuesto, que asciende a la cantidad de 32.062,40€. El gasto aprobado se incorporará, en parte, como crédito de compromiso en el ejercicio 2009.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a los departamentos de Intervención y a Agenda 21, Partaidetza eta Ingurumena.

**11.- <u>Informe limpieza viaria</u>.**

Gaia erabaki gabe geratu da.

**12.- <u>Galtzaundi, Hitza eta Txolarrerekin hitzarmenak</u>.**

**Galtzaundirekin hitzarmena.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>**.- Ondoren aipatzen den hitzarmena, hitzez hitz, **GALTZAUNDIREKIN** sinatzea.

**"TOLOSAN EUSKARAREN ERABILERAREN HAINBAT NORMALIZAZIO-LAN LANKIDETZAZ BURUTZEKO.**

**Tolosan, bi mila eta zortziko uztailaren .**

**BILDURIK**

Batetik, Jokin Bildarratz Sorron jauna, NAN: 15.960.103-N, **TOLOSAKO UDAL**eko alkatea, haren izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Anjela Alamo Ruiz, NAN: 72.490.216-N, **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA**ren izenean eta beronen ordezkari gisa.

Bi alderdiok hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

**AITORTZEN DUTE**:

**GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA** euskararen erabileraren alorrean hainbat normalizazio-lan burutzen ari dela eta hauen guztiaren onuradun Tolosako herria dela.

**GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA** irabazi asmorik gabeko elkartea dela eta komenigarria dela egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta bide batez, honen geroa ziurtatu eta sendotzea.

Arestian aipatutakoa horrela izanik, **HITZARMEN** hau sinatu dute, ondorengo klausulen arabera.

## KLAUSULAK

**Lehena**.- Hitzarmen honen helburua da **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK** eta **TOLOSAKO UDALAK**, elkarlanean eta **GALTZAUNDI**ren ardurapean, 2008. urtean burutuko dituzten euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

**Bigarrena.-** HITZARMEN honen bidez, ondoren azaltzen diren jarduerak eta normalizazio-lanak lagunduko ditu diruz **TOLOSAKO UDALAK**, eta **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK** hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu lanok. Ekimen-zerrenda irekia da eta beste ekintza batzuk ere elkarlanean antolatu eta diruz laguntzeko aukera izango da, beti ere, **TOLOSAKO UDALA**ren eta **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA**ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua izanez gero.

Diruz lagunduko diren jarduera eta normalizazio-lanak:

Hizkuntza normalizazio-lanak eta kultur jarduerak: 25.000 euro.
Galtzaundik aurrera eramango dituen egitasmoak: Gastronomia elkarteetako plangintza, gizarte eragileekin konpromisoen plangintza, Euskarari bai astea eta erakusketa, komiki erakusketa, poesia errezitaldia hainbat ikastetxe tarteko, mahainguruak, Txilipurdika ludoteka, Eskerrak Zuri, literatura hitzaldiak, euskararen aldeko jaietara autobusak...

Galtzaundi hamabostekaria: 11.440 euro. Tolosako Udalak bere gaiak jorratu eta gizarteratu ahal izango ditu Galtzaundiren bidez, edozein herritarrek duen aukera erabiliz. Aukera hori erabili ahal izango da gehienez hilean behin. Argitalpen guztietan Galtzaundik Tolosako Udalaren izena eta armarria jarriko ditu eta horretaz gain, orri eta erdiko propaganda, koloretan, jarri ahal izango du Aitzol Udal Euskaltegiak.

Aipatutako jarduera guztiengatik 36.440,00 €-ko diru laguntza emango dio Tolosako Udalak Galtzaundi Euskara Taldeari.

**Hirugarrena**.- **TOLOSAKO UDALA**ren eta **GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA**ren ordezkariz osatutako lan-taldeak bilera egingo du urtero. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena gauzatzeko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta bestetik, dokumentu honetako bigarren artikuluan ere aipatzen den moduan, hizkuntza normalizazioaren alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmoak abian jartzen saiatzeko.

**Laugarrena**.- Aipatutako diru laguntza honela emango da:

% 50 hitzarmena sinatu bezain azkar, eta falta den %50a abenduko lehen hamabostaldian. Diru laguntzaren zati bakoitza jaso aurretik, **GALTZAUNDI**

**EUSKARA TALDEAK** diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak ekarriko ditu.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean".

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Galtzaundi Euskara Taldeari, Kontuhartzailetzari eta Euskara eta Hezkuntza departamentuari.

**.-.-.-..-.-.-.-.-.--.-.-.---.-.**

**Hitzarekin hitzarmena.-**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Ondoren aipatzen den hitzarmena, hitzez hitz, **HITZA**rekin sinatzea.

**"HITZA EUSKARAZKO EGUNKARIA BABESTEKO.**

**Tolosan, bi mila eta zortziko uztailaren**

**BILDURIK**

Batetik, Jokin Bildarratz Sorron, NAN: 15.960.103-N, Tolosako Udaleko alkatea, haren izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Jon Mujika Odriozola, NAN: 72.459.870-A, Tolosa Herria Hedabidea S.L.ren kudeatzailea, haren izenean eta ordez diharduena.

Bi alderdiok hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

**AITORTZEN DUTE:**

**HITZA EGUNKARIA** euskararen erabilera areagotzeko lanean ari dela eta honen guztiaren onuradun Tolosako herria dela.

Komenigarria dela **HITZA EGUNKARIA**k egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta bide batez, bere geroa ziurtatu eta sendotzea.

Arestian aipatutakoa horrela izanik, HITZARMEN hau sinatu dute, ondorengo klausulen arabera.

**KLAUSULAK**

**Lehena**.- HITZARMEN honen helburua da **HITZA EGUNKARIAK** eta **TOLOSAKO UDALAK**, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

**Bigarrena.-** HITZARMEN honen bidez, **HITZA EGUNKARIA** diruz lagunduko du **TOLOSAKO UDALAK**. Ekimen-zerrenda irekia da eta hedabideetako beste euskarri batzuk ere diruz laguntzeko aukera izango da, beti ere, **TOLOSAKO UDALA**ren eta **HITZA EGUNKARIA**ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua izanez gero.

2008an, gutxienez astean sei egunetan (abuztuan izan ezik), gutxienez 8 orriko egunkaria egin, argitaratu eta Tolosan ere harpidedunen artean banatzeagatik, ondorengo diru laguntza emango dio TOLOSAKO UDALAk HITZA EGUNKARIAri: 33.280 €.

**Hirugarrena**.- **TOLOSAKO UDALAREN** eta **HITZA EGUNKARIAREN** ordezkariz osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena gauzatzeko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta bestetik, dokumentu honetako bigarren artikuluan ere aipatzen den moduan, hedabideen alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmoak abian jartzen saiatzeko. Honetaz gain, Iragarri enpresarekin zehaztutako urteko egitasmoetan Udalaren publizitatea agertuko da HITZA egunkarian hitzarmen honi itsatsita dagoen idatzian azaltzen den moduan, eta aurreikusita dauden kopuruak (orokorrak) 2008rako gehienekoak izango dira eta, era berean, ezin izango da beste kontzepturik gehitu.

**laugarrena**.- Aipatutako diru laguntza honela emango da:

Diru laguntzaren %50 hitzarmen hau sinatu eta diru kopurua zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak ekarri bezain azkar, eta falta dena, abenduko lehen hamabostaldian. Bigarren zatia jaso aurretik diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia, diru kontuen balantzea, fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztutakoan.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean".

**2008ko PUBLIZITATEA IRAGARRI S.L.rekin (Eranskina)**

Behean agertzen diren diru kopuruak prezio bonifikatuei dagozkie, hau da, berez Iragarri S.L.ren prezioa behean agertutakoaren bikoitza da, baina Tolosako Udalari erdia kobratuko dio.

Publikazioa:

- Gerrate zibilaz liburua: 1.100 euro. Babesle nagusiaren tokia liburuan.
- Sanjoanak 2008: Sanjoanetako ale berezian 300 euro.

Azokak:

- Azokak: Lore eta landareak, ekologikoa, sanjoanetako azoka berezia, gazta eta abelgorriak, babarrunaren astea eta Gabonetako azoka: 1.890 euro. 5 x 2 neurrian argitaratuko da Hitza eta Berrian.

Txuleta festa:

945 euro. 5 x 2 faldoia abenduan hiru egunez Hitzaren portadan eta Berria egunkarian.

Gehigarri tematikoak:

- Tolosako ekipamendu kulturalak: 1.000 euro.
- Abesbatzen lehiaketa: 1.250 euro. Ale berezian.
- Txotxongiloen jaialdia: 1.250 euro. Ale berezian.
- Babarrunaren astea: 1.250 euro. Ale berezian.

Publizitate orokorra:

- Kultura Batzordearen iragarkiak: 1.100 euro.
- Genero indarkeriaren eguna: 825 euro. Orri erdia
- XIV. Orduak: 330 euro. Ale berezian
- Kilometroak : 247,5 euro. 5 x 3 iragarkia ale berezian
- Euskararen Eguna: 165 euro. Faldoia

Berria egunkaria 2008 publizitate hitzarmena

- 2008 Sanjoanak: 315 euro. 5 x 2 koloretan Berriaren ale berezian

Euskara : Sanjoanetako eta Pilariketako bertso saioak: 900 euro.

Aitzol Udal Euskaltegia:

- Irailaren 9,10,16 eta 17an 2x3ko iragarkiak azalean. Irailaren 13an 2 orriko publierreportaia . 2.320 euro.

- Urtekarian 580 euroko iragarkia.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Hitza egunkariari, Kontuhartzailetzari eta Euskara eta Hezkuntza departamentuari.

**.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.----.**

**TXOLARRE IRRATIA BABESTEKO.**

Hitzarmen hau erabaki gabe geratu da.

**.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.---.-.--.**

**13.- Diru laguntzak fatxadak pintatzeagatik**.

Egindako txosten teknikoa ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- 2004. urtean etxeko fatxadak margotu zituzten jabeei ondorengo diru laguntzak ematea:

| | |
|---|---|
| Jabekideak, Oria kalea 12<br>Telf.: 650801425<br>1.400 $m^2$ x 2,05 € | 2.870,00 € |
| Jabekideak, Gernikako Arbola Lorategiak 1<br>Telf.: 943651713 (Adm. Aramburu)<br>1.317 $m^2$ x 2,05 € | 2.699,85 € |
| Jabekideak, Gernikako Arbola Lorategiak 8<br>Telf.: 943651713 (Adm. Aramburu)<br>1.996 $m^2$ x 2,05 € | 4.091,80 € |
| Jabekideak, San Frantzisko pasealekua 43<br>A eta B<br>Telf.: 639308630 (Julian Jáuregui)<br>1.829 $m^2$ x 2,05 € | 3.749,45 € |
| Jabekideak, Lopez-Mendizabal pasealekua<br>1-2-3<br>Telf.: 943651333 (Pepita Esnaola) | 7.609,60 € |

3.712 $m^2$ x 2,05 €

| | |
|---|---|
| Jabekideak, Batxiller Zaldibia 1<br>Telf.: 943651713 (Adm. Aramburu)<br>2.275 $m^2$ x 2,05 € | 4.663,75 € |
| Jabekideak, Soldadu kalea 10<br>Telf.: 687994077 (Miguel Larrañaga)<br>136 $m^2$ x 2,41 € | 327,76 € |
| Jabekideak, Errementari kalea 12<br>Telf.: 943118068/943673533 (Iosune)<br>114 $m^2$ x 2,41 € | 274,74 € |
| Jabekideak, San Frantzisko pasealekua 36<br>Telf.: 94365111 (Mª Dolores)<br>494 $m^2$ x 2,05 € | 1.012,70 € |

**GUZTIRA: 27.299,65 €**

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Obra, Auzo eta Hiri-Mantenimenduko batzordeari eta interesatuei.

.-.-.-.-.-.-.--.-.---..-.-.-.-.-.---.

Egindako txosten teknikoa ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- 2005. urtean etxeko fatxadak eta baserriak margotu zituzten jabeei ondorengo diru laguntzak ematea:

**ETXEAK 2005**

| | |
|---|---|
| Jabekideak, Aroztegieta 20<br>Telf.: 943672494 (Jesus Mª Goya)<br>350 $m^2$ x 2,50 € | 875,00 € |

**ETXEAK GUZTIRA: 875,00 €**

**BASERRIAK 2005**

| | |
|---|---|
| Juan José Errazkin Errondosoro<br>Soroa baserria, Usabal auzoa<br>Telf.: 943674994 | 286,84 € |
| Felipe Sarasola Leunda<br>Isastegi Bekoa baserria, Aldabatxiki auzoa<br>Telf.: 943652591 (Belen Sarasola) | 286,84 € |

**BASERRIAK GUZTIRA: 573,68 €**

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Obra, Auzo eta Hiri-Mantenimenduko batzordeari eta interesatuei.

.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.--.-----.--.-

Egindako txosten teknikoa ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA**.- 2006. urtean etxeko fatxadak margotu zituzten jabeei ondorengo diru laguntzak ematea:

**ETXEAK 2006**

| | |
|---|---|
| Jabekideak, Kondeaneko aldapa 34<br>Telf.: 943670761 (Pedro Manuel Otegui)<br>789 m$^2$ x 2,19 € | 1.727,91 € |
| Jabekideak, Gudari kalea 1<br>Telf.: 943118606 (Joaquin Tapia)<br>640 m$^2$ x 2,19 € | 1.401,60 € |
| Jabekideak, Rondilla kalea 2<br>Telf.: 943118972<br>2.921 m$^2$ x 2,57 € | 7.506,97 € |
| Jabekideak, Andre Mari plaza 1<br>Telf.: 943651713 (Adm. Aramburu) | 1.924,93 € |

749 m$^2$ x 2,57 €

**GUZTIRA: 12.561,41 €**

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Obra, Auzo eta Hiri-Mantenimenduko batzordeari eta interesatuei.

.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.--.-----.--.-

Egindako txosten teknikoa ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- 2007. urtean etxeko fatxadak margotu zituzten jabeei ondorengo diru laguntzak ematea:

**ETXEAK 2007**

| | |
|---|---|
| Jabekideak, San Inazio kalea 2<br>Telf.: 943118476 (Asunción Odriozola)<br>672 m$^2$ x 2,28 € | 1.532,16 € |
| Jabekideak, San Inazio kalea 4<br>Telf.: 943651489 (Eleuterio Cristobalena)<br>1.163 m$^2$ x 2,28 € | 2.651,64 € |

**GUZTIRA: 4.183,80 €**

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Obra, Auzo eta Hiri-Mantenimenduko batzordeari eta interesatuei.

**14.-18.zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailetzak 18. faktura-zerrenda, 189.376,85 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**<u>LEHENA</u>.-** Aipatutako 18. faktura-zerrenda onartzea.

**<u>BIGARREN</u>.-** Onarpenaren berri Kontuhartzailetzari ematea.

**Eta besterik gabe, 10:00etan bilera amaitutzat jo dute.**

**Behin Beh. ALKATEA** **IDAZKARIA**